

# Frantzia'ko diplomaziaren joera

## Paris'tik gure korresponsal Dan André Noziere'k

«Errusiarrek ikusten dute Frantzia'k, munduan aundientako batek bezela, nazio-arteko leguntasunerako asko egin lezakela. Ezin ditekela onartu gabe utzi nazio-arteko problema batzuei dagokionez Frantzia'ko zuzendariak duten joera». Frantzi ta bere zuzendarientzat aintza aukeratu Podgorny jauna, komunista partiduaren sekretario ta batzuen-tzat Khrouchtchev'en ondorengoa dana dute egillie bezela. Onelako joera on bat ezinezkoa zan orain dala illabete batzuek. Lengo urtean sovietikoak frantzes Errepublikako lelakariaren kontra gogor itzegiten zuten, au aleman guda-zalehen laguna izateagatik, gudaren maitalea atomika esperientziak g'eldi erazitzeko tratatua izenpetu etzutelako.

### ERRUSIARENGANA ADIZKIDETASUNA

Eta ara, Frantzi ta Errusiaren artu-emanak obetzen dijoazte. Ilbel-tzian Diru gaietako ministro dan Gis-card-d'Estaing jauna Moscou'n arkitzen zan, Rodnev jauna, Errusi'ko gobernuaren lelakari ordezkoa

frantzes teknika aurrerapenak ikusten arkitzen zan bitartean. Azkenik, otsailaren bukean, Krelim'go agintaririk aundienetakoa, Podgorny jauna Frantzia'n arkitzen zan erri-tik errira, uritik urira bi nazioen arteko elkartasuna txalotuz: «Gure bi erriak elkartzen dituzten gauzak idartsuagoak dira apartatzen dituztenak baino... Gure arteko eragozpenak ez dira aih luzeak izango».

### MUNDUAN BARRU ALDAKETA

1963'gna, ezkerotik munduan naikoa aldatu da. Frantzia'k Pekin'go Txina ezagutu du, Moscou'ren baitzukoarekin; Txipre'n pakea jar-tzeko mandatua ez dio N.A.T.O.'ri utzi nai izango; munduaren iriziri-ko okzidenteko «Aundi» bakarra da iraupena, U.S.A., Ingalterra ta Alemania eleazio aurretan arkitzen dirraik; Errusi'ko ekonomia-aren berriak kimikari ematen dieleku aundia eta baiiteke joera onek Errusi'ko zuzendariak Frantzia'n bear dituzten instalazioak bilatzea.

Baihan ez ote da bere «aundita-suneko» politika egiteagatik iruga-

rren mundura geiago jotzeagatik, ez ote da orregatik De Gaulle komu-nistekin urbi'du naiean ari?

### IRUGARREN MUNDUAN DUAN ARRERA

Paris, Moscou, Pekin eta iruga-rren munduko uri-buruak Camoya'ren gaiean Sihanouk printzipeak eskatzen duan Billera ondo ikusten dute. Ez luteke gaizki artuko Asia'ko alderdi aiek neutralizatzea. Egu-netik egunera Frantzia'ko diploma-ziak argiago azaltzen du irugarren munduaren aurrean daukan egin-bearra. Ben Billa jaunak Château de Champ'en egindako ikustaldiak indar berri bat ematen dio Frantzia'rengan kohoperazioaren eustalerik bereona arkitzeko naia dutenei. Bere asmoak Algeri' Erreboluzioaren eta nola albaiteko sozialismoa sar-tzen ari dan liderrarekin etzabida-tzerakoan, bere joerei indar berri bat ematen die Mexico'run'tz Brasi-lia'run'tz edo Pnn-Penh'run'tz. Nas-ser'ek, Chou-En-Lai'k, Modibo Kei-ta'k, Sekou Toure'k, Fidel Castro'k Frantzia'ren «askatasun» espiritua goratzen dute. Tant jaunak Frantzia ta bere lelakariari omen egiten die.

Estadu guzti auzentzat Frantzia atzeratuta dauden errii dirua, tek-nika ta kultura laguntza ematen du-na da. Baihan geiago oraindikan, Frantzia nazioaren askatasuna billa-tzeko ejenplurik onena da. U.S.A.'tik lokarriak auste, ameriketar poli-tikarekin batasun eza, Washing-ton'en interesen aurka jokatzeko as-kotan, bere ekonomi ta politika as katasunaren billa dabilzan errian oirtzunik gabe ezin gelditu.

### FRANTZESAK POLITIKA ONE-TZAZ ZER PENTSATZEN DUTEN

Oraingo politika onek frantzes asko bere abertzalekeritasunean ikuitzen ditu.

Ala era askotako oposizio batek bere abotsa entzun erazten du. So-zialista munduarekin urbiltasunak, Pekin'en ezatzeak eta baditekue biar eguneko lelakariaren Moscou'ra tik Washington'ekin artu-emanak oztuak ikusten dituztenak. Beste batzuek, berdiñak batzuetan, azi-tzen ari diran errii ematen zaiz-kien laguntzen kontra daude, diru beajeak bildurtu egiten ditu orrega-

# MUNDUAN

# ESATEN

# DANA

## LA DISCUSSIONE

### Aldaketen bearra

Ogei urten barruan Erri bat demokraziaren zentzu oso-osoan zuzendu ditekela uste al dezute? Ezin ditekela ogei urten barruan tresna berdi-ñak ibilli eta formula berdi-ñak pentsatu.

auk Frantzia'n demographi ugari-tzarekin beerezkoak izango dira-lako. Beste batzuek berriz, eta au da frantzes ezkeraren joera, gutxi-ago kontra egiten diote De Gaulle'n jokoari, jokoari onen arazoiei baino. Oientzat De Gaulle lelakari-aren «Aunditasun politika» txarra da gizon baten edo erri baten aundi-tasuna zabaltzeko bakarrik dala ko, benetan prolemak konpondu bearrean.

## NAZIO-ARTEKO UNEA

# KENNEDY-REN PENTSAMENTURAREN ERIOTZA

Pentsatua neukan bein baihan gelagotan, ezin nintzan atrebi ordea ortaz mintzatzea. Begiratu bat eman mundu guzitari ta da-nak kennedyzaleak bezela ikusten dira, ez da inor ateratzen bere esanen kontra. Baihan ara, lengo egun batean Maurice Duvergere'-en artikulu bat irakurri det gai orretaz eta orain ez det bildurrik.

Ikasten ari geralaiko, ikasi bearren artean politika eskubidea ikasi bear degunoi etzalgo batere arrotz egiten Duverger jaunaren izena. Orain esaten dan bezela au Frantzia'ko «Politikologorik» onea, au da, politika jakintzan jakitunenetakoa.

Jaun onek dionez prolema aundi bat arkitzen da gaurko lati-noamerikan: ea ango prolemak konpondu ditezken erreboluziorik gabe reformen bidez, reformismoaren bidez. Kennedy k reformismo oni laguntzeko erabakia artu zuan. Baihan erabaki ori nola ala-bait Ipar-ameriketako'ko izaeraren kontra zihoan ordea. Reforma olek nai ta nai ez sozialismoaren antzeko zerbatuekin egin bear eta Ipar-ameriketako'ko jende itz orrek izugarriko bildurra ematen dio nunbait. Orregatik bazirudin ezinezko jokabidea zala Kennedy k artutako. Ala ere politika orrek bakarrik ekarri zezakean prolemak askatzeko hibe bakarra.

Ez du orrela pentsatzen oraingo Jhonson lelakariak. Onen-tzatz, eta bere laguntzallentzat latinoamerikan lenen lenen-go da Ipar-ameriketarren interesak defenditzea ta gero komunis-moari kontra egitea baihan nolana, batere beariratu gabe nortsuek agintzen duten, demokraziaren bitartez egiten duten edo ez begi-ratu gabe. Benetan penagarria eta huzarora kaltegarria.

Ori bakarrik balitz baihan, zoritxarrez, antzematen Ipar-ame-riketako'ko zuzendaritza aize berriak etorriak dirala, zerbat falta dala. Eta alperrik esatea izango da, baihan nik naigo nitan lengo aizeak orainrokoak baino, gategoak eta egi-zalegoak ziralako.

Eta arrabi aundiena ematen ditena auzo da, alegia, Kennedy ill zunak pozez txoratzeko erongo dala pentsatzeak. Kennedy ilte-rrakoan zuzkan asmo guztiak beteia ikusiko ditutalako. Ez dute arrapatu, bere ordez beste batuek izango dira illak. Gainera Ipar-ameriketako'ko aizeak siltatzea nai baldin bazuan, bere naia oso-osoan bete da. Zer gelago nai lezake?

Arregi'tar Rikardo'k

# Pasatako garaien itzala

# Jokabide berriak sendotu bearra

## Buenos Aires'tik gure Korresponsalak

Peron'en garaik joan ziran eta bai ere bere ondorengoak, ala ere bein baino geiagotan garai aien itza-la azaltzen da, batez ere garai aietan ekonomi kontuetan egin ziran espe-rirentzi zoritxarreko eraberritzeko arriskua ikusten danean.

### Garia ta Komunisten Txina

Argentina'k Komunisten Txina'ri egin dion gariaren salketak makiña bat zalantza sortu ditu. Txina'k ale-giñ aundienak egin zituan sal-eros-ketaren tratua gobernuarekin egite-ko ta ez gizon partikularrekin. Eta nai zuna lortu zuan. Ortik bi on-dorena atera ditezke, batetik estadia ekonomia-aren barruan al dun geina sartu nai duala, ta orrek asko ike-ratzen ditu argentinok Peron'en

garaian gertatuakoak etortzen zaiz-kie burura ta. Bestetik berriz tra-tuak gobernuarekin egiterakoan Ar-gentina'ko gobernuak Txina'koa no-la alabait ezagutu egiten dula esan nai du.

### Limosna audiegia danean santua ere zalantzan jartzen da

Ez da arritzekoa orregatik Argen-tina'n salerosketa onekin danak zalantzan jartzea, Txina'k gobernuari gariagatik partikularrei baino diru geiago eskeñi dio. Ta Illia lelakari jaunak egin zituan deklarazio ba-dorengandik bazirudin estadia konpondu nai zituala andik aurrera esportazio gaietako arazoak. Izan zan ortarako Peron'en garaian IAPI

izeneko antolaketa bat gai oietko ta orren itzalak danak bildurtu zi-tuan. Ori dala ta bildur guzti oiek ixi'tarazteko Illia jaunak deklarazio batzuek egin bear izan zituan esa-naz Txina'rekin egindako tratua etzala politika jokabide bat gertaera bata baizik.

### Nekazaritza ta makinak

Era guztietara orrelako tratuak etzaziko gaizki etortzen Argentina'ri. Ez da ahaztu bear Argentina'k artzen dituan «divisen» arten eue-tik larogeita ta amabost nekaz-ri-tzaren esportazioetatik datorziko. Bestaldekik berriz makinak bearez-kan ta guz asko inportatu bearrean ar-kitzen ta ortarako divisak bear.

# Televisores "Vanguard"

## Central de Materiales Eléctricos

Probintziako komerzio on guzietan salgai